

**LURRALDE ANTOLAMENDU
ETA INGURUMEN SAILA****Zk-5162**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena:
«183/2003 Dekretua, uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena.»

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.1 artikuluan xedatzen duenez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzari dagokio aldizkarian argitaratutako testuetan egindako tipografia edo inprimaketa hutsak zuzentzea, nahiz bere kabuz nahiz doakion organo edo erakundeak eskatuta, baldin eta hutsak xedapenen esanahia aldatu edo horiei buruzko zalantzak sortzen badituzte.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen 2003ko uztailaren 22ko Dekretua 2003ko irailaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (172 zk.) eta bertan aipatutako moduko hutsak ikusi direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

Azalpen zatiaren azken paragrafoan, 17082. orrialdean, honakoa dioenez:

«Horri guztiari jarraiki, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposaturik, Eusko Jaurlaritzaren Batzorde Juridiko Aholkulariari adituta, eta Gobernu Batzordean eztabaidatu eta onartu ondoren, 2003ko uztailaren 22an,

I. KAPITULUA»

Honakoa esan behar du:

«Horri guztiari jarraiki, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposaturik, eta Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari entzun eta Jaurlaritzaren Batzordeak 2003ko uztailaren 22an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA»**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE****Nº-5162**

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

El artículo 24.1 del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento rectificará de oficio o a instancia del órgano o entidad interesado los errores tipográficos o de impresión que se produzcan en la inserción de los textos publicados, siempre que supongan alteración o modificación del sentido de los mismos o puedan suscitar dudas al respecto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto del Decreto 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 172 de 4 de septiembre de 2003, se procede a su oportuna corrección:

– En el último párrafo de la parte expositiva, página 17082, donde dice:

«En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión de 22 de julio de 2003,

CAPÍTULO I»

Debe decir:

«En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión de 22 de julio de 2003,

DISPONGO:

CAPÍTULO I»